## SECCIÓN AMENA

# GERTAERA BAT

Etzait aztuko. Urte sasoi au zan. Gingak zintzillik zeuden.

Nere Donostiatik urruti s̄amar arkitzen nitzan, eta echera netorrela, illunabarrian, baserritarrez betia zegon sagardotegi batian sartzeko denboran, entzuten det:

—Zauzte is̄illik, donostiar bat ziatorrek eta.....

—Arrasalde on, jáunak, ¿ari zerate jolasian?

—Donostiar kontu, jauna. Kaskariñak dirala ez du ukatuko.

—Nik eziñ esan. ¿Zuek ezagutzen dituzute zeren buruak?

—Ederra dek, to, bai motell, arrapazak ori,—bata bestiari esanaz is̄ill gelditu ziran, eta orduan esan niyen:

—Nik aditzia detanaz, donostiarrez betia balego mundua, besterik izango litzake.

—Ja, ja, jay....

—Bai; iñoren gaitzik gabe, umore ona pasatzia da donostiarren izatia; t'abek gabeko sagardotegia, gatzik ez duen eltzia.

—Bejundeiyola.

—Agur, urren arte.

ANTONIO ARZÁC.